

BILBAO ATZERRITARREN BIZITOKIA

Mundu zahalean erri batzuk errez biurtzen dira ospetsu, edo kai eder bat daukelako edo ardao onagaitik edo Ederti-Etxe egokiakaitik edo jakintza zahala daukelako...

Olako errietan edo urietan bizitokiak edo ostatu aundi ta ederrak bear izaten dira, erbestetik etorten diranak non jan eta non lo egin izan dagien.

Gure Bilbao onetan, batez be orain Erriarteko Azokea dala-ta, gero museo barria, ostatuak eta hizitokiak ez dira naikoa, ez daukaguz bear diran beste jatetxe etorriai txera ona egiteko.

Azokearen eratzailleak Europa guztian egiten dana egiteko ustea dauke: Gelak eta etxe-maillak alogorean artu. Orretarako eskintza lez itun-gai hat eskiñi dautse etxeak utsik eta alogorean emon barik daukezenai eta orain onein eskintza itxaroten dagoz eta eskariak zelakok diran, arduradunen erantzuna alakoa izango da.

Ander Beldarrain Zuzendari-Ordeak, urte birako tresna eta langaien Erriarteko Azoka iragarri dauanean, beste au be jakin-erazoten dau: Bizkai'ko Uriburuan diran ostatuak, baita inguruko urietakoak, ez dirala naikoa ikustaldiak egitera datozenentzat. Bilbao, Gasteiz eta Donosti'koak ezin dabe geiago artu eta orregaitik. ez dago beste biderik Burgos, Laredo ta Logroño'ra hialtzea baiño.

Jakiña da, geienai ez jakela izaten atsegin orrelako bide luzeak egunero egitea. Gaiñera urrin dagozan ostatuetxeak artzen dabez azokara egiten diran ikustaldien onurak.

ETXE-MAILLAK

Laterriarteko Azokearen Eratzailleak alegin guztiak egin ditu, adibidez, eskintza on hat egiteko: Ikasteko sasoia ez danean, ikastetxeak, bizilekuak eta beste urtenbide batzuk eskintzen. Danak hearco dira.

ENTZUN

Zuk nai dozu EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren 25n. urtean maite dozun erakunde oneri oparitzu hat egitea?

Geuk esaten dautsugu zein dan oparirik ederrena: Bazkide barri bat eta batera ZER aldizkari onen arpidedun izango dana aurkitu egizu. Bat haiño geiago al ba'dozu obeto.

Ez da ori ain gauza gaitxa.

Egin zuk be zerhait EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren jai aundi au ospatzeko.

Opariagaitik, aurretiaz, gure eskerrik beroena agertzen dautsugu.

EUSKERAZALEAK

ITXAS-ONTZIAK

Beste asmo bat dago: Itxas-ontziak artu orretarako, 300 gelatxu daukezan itxas-ontziak. Olako ontziak Bilbao'ra ekarri hearco litzakez, baiña Elorrieta'tik aurre-ra olako ontziak ezin ekarri.

Edozelan be, Bilbao'n dagozan ostatuak, esan dogun lez, ez dira naikoa eskariak erantzuteko, era egokian erantzuteko beintzat.

Emen ez dago oiturarik, baiña bai beste laterri batzutan, Alemania'n esaterako. Oraingo etxeak eta hizilekuak utsik daukezanai eskintza egiten jake. Asko dira Bilbao'n bizilekuak dauken Bilbao'tar eta euskaldunak. Olakoak alogorean emoteko gogorik ba'leukie, dim apur bat irahazteko ametsa egin leikee.

Eta zeintzuk dira hizi-leku orreik izan hear dabezan haldintzak?

Ez dint asko eta ez gaitzak he: Bilbao-banruan, obeto erdian, izan daitezela, ez da hearrezkoa ondo apainduak izatea, naikoa da gela bat eta bustialdia egiteko lekua izatea bakoitxarentzat. Ez da hearrezkoa uguztegi an gelean barman egotea.

Erbestik datozenak ondo artzeak garrantzi aundia dauka, aide askotatik begiratuta.

Orregaitik, kalean naiz etxean eurak ondo zaintzen alegindu bear gara, geu he erhestera joaten garanean ondo begiratuak izaten zaleak gara-ta. Zertan esan he ez, giza legeak berak eskatzen dauan gauzea data ori.

Euskaldunak lurralde askotan ibilliak gara eta heti izan gara ondo artuak, geuk he alegiña egin hear dogu antzeko erantzuna emoten, hatez he orain Europa-bidean aurkitzen garan ezkerro.

LETONA' k